

102. zk.
2001eko ekaina



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

ekainaren 17an
la Puebla de Arganzón
argantzun
trebiño
araba
euskaraz
2001
hazteko
erein




Tranketo ifundua 48/27

EUSKARA HAZIZ TREBIÑON
ARABA EUSKARAZ-01. EKAINAK 17. ARGANTZUN

4x3

HILABETE HONETAN 3 LIBURU ORDAINDU ETA 4 ERAMAN (merkeena dohain) albeniz liburudenda

Benito Ginea, 2 - Tfnoa. 945 25 75 14 • 01003 GASTEIZ



102. zk. 2001eko ekaina

•• 4-5. orr.:

Gasteizetik Bai Euskarari!

•• 6. orr.:

Zizka-Mizkak

•• 7. orr.:

Nik Uste!

•• 9. orr.:

LITERATURA

•• 11-13. orr.:

Maeztuko 'Los Roturos' Hotela

•• 15. orr.:

Emaize Sexologia Elkartearen itzulera

•• Barruko orrialdeak:

Araba euskaraz & Kirol arabarra

•• 21-23. orr.:

Akobetik-Zutabera, artea zainduz

•• 25. orr.:

Euskaltasunean lagun, Ane Larrañaga

•• 26-27. orr.:

Diocesanas:

Lanbide Heziketa euskaraz

•• 29. orr.:

Kulki, kultura eta kirola

•• 30-31. orr.:

Tribu Chaman musika taldea

•• 33. orr.:

Zeuk aukeratu!

•• 34. orr.:

Iñigo Sarasola. Komikia

EKAINAREN 17an DENOK ARGANTZUNERA!



GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a • Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es


Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** Dalvez. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Agurtzane Villate. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin, Maider Perez, Amaia Zaldia, Santi Carvajal eta Gonzalo Vicario. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 • LG: VI-582/92 • ISSN: 1133-0988 •

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzikizunik.



Euzko Jauriaritzako Kultura Saila



Argitaratzen du Euzko Elkartea



Arabako Foru Aldundia



CAJA LABORAL EUSKADUNO

Egunkaria

ETA ADI DATORREN ALEARI (UZTAILA)...

...UDAKO OPARIA GEU ALDIZKARIAREN HARPIDEDUNTZAT
"EUSKALDUNON GIDA KOMERTZIALA-2001" EUSKALDUNON EGUNKARIAren eskutik

Euskaldunon Egunkaria eta Geu aldizkariaren ekimenez

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

...GASTEIZEK BAI EUSKARARI BEHIN ETA BERRIRO!



• • •
*IRAKATSI=IKASI=MINTZATU=
IRAKATSI=IKASI=MINTZATU...

*...6.000 SINADURA

ZORIONAK EUSKALTEGIAK, ZORIONAK GASTEIZ!

"HIZKUNTZA BAT "GALTZEN DA" (=GALARAZTEN DA) DAKITENЕК EZIN DUTENEAN IRAKATSI, EZ DAKITENЕК EZIN DUTENEAN IKASI, HOTS, IKASTEN ETA IRAKASTEN ARI DIRENEI OZTOPOAK, TRABAK JARTZEN ZAIZKIENEAN, BERAU NORMALIZATZEKO URRATSIK EMATEN EZ DENEAN ETA NORMALIZAZIOAREN ALDEKO URRATSAK EMATEA OZTOPATZEN DENEAN, GAUZAK NAHASTEN ETA NAHASTARAZTEN DIRENEAN, HIZKUNTZA BALORATZEKO-BALORARAZTEKO, EZAGUTZEKO-EZAGUTARAZTEKO, MAITATZEKO-MAITARAZTEKO AZKEN FINEAN, INOLAKO AHALEGINIK EGITEN EZ DENEAN, ETA HONETARAKO TRABAK ERE JARTZEN DIRENEAN, INGELESAREKIN (eta gora hizkuntzak!... ingelesa, gaelikoa, portugesa, txuvaxera, txinera, italiera, korsikera, gaztelera, arabiera, errusiera, ketxua, fang, bubi,..., baina ez ditzagun gauzak nahastu!) PAREKATZEN DENEAN (Nafarroan bezala...), ERABAKI OZTOPATZAILEAK ABIAN JARTZEN DIRENEAN..."

NOIZ ARTE?

ETA... GASTEIZEK BERRIRO ERE BAI EUSKARARI,
GASTEIZEN BERRIZ ERE EUSKARA MUSUKATZEN!!!



GEU ALDIZKARIA. 100. ALEA. MATERIALA SALGAI. EROSI ETA KOLABORATU!

- KAMISETAK (GRISA-BELTZA): 2000 PTA.
- TXISKEROAK: 150 PTA.

*HONAKO TOKIETAN: TXAPELARRI, PARRAL, ALDE ZAHARREKO HERRIKON (KAMISETAK ETA METXEROAK)/XABIER, BODEGOIA, ANDAGOIA (METXEROAK)

EDO HONA DEITU:
945 22 21 53.

"TXEROKIREN TXORAKERIAK"


KOMIKI LIBURUA: 1.600 PTA. LIBURUDENDETAN SALGAI.

*HARPIDEDUN ETA BAZKIDEENTZAKO
ESKaintza berezia: **1.200 PTA.** (Hona deituta).



araba bixotzian

gastelZkinak



'tutuland'

Agurtzane Villate

ikusi-makusi




**GIZA
ESKUBIDEAK
ZENTZU
GUZTIETAN**

Giza Eskubideen inguruko erakusketa ikusgai egon da Gasteizko Kultura Etxean maiatzaren zehar, **Hirugarren Mundua eta Bakea-k** antolatuta.

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



Enara (*Hirundo rustica*). Oso goiz heltzen dira ekialdean negua pasa ostean. Seguraski dagoeneko bigarren txitaldia aurrera doa.

ZINEA EUSKARAZ BAI. Aurreko alean argitaratu bezala Gasteizek badu euskarazko eskaintza kultural berri bat: Florida Zinemen ekimenari esker euskarara bikoiztutako filmak ikus baitaitezke bertan. Begi-bistakoa da geure euskara maitea zorionez geroz eta protagonismo handiagoa lortzen ari dela Gasteiz partean. Orain hiritarrei dagokie proiektu honi merezitako harrera ona ematea... Hona hemen galderak:

1.- Ba al zenekien Florida Zinemetan euskaratutako filmak botatzen dituztela?

2.- Zer deritzozu ekimen honi?



Nieves Ruiz.
Administrari

1.- Zinema hauetara joateko ohitura dut baina ez nuen ekimen hau ezagutzen.
2.- Oso ondo iruditzen zait.



Maria.
Gizarte-langilea

1.- Bai, duela egun pare bat egunkarian irakurri bainuen.
2.- Ekimen interesgarria dela deritzot.



Manoli.
Langilea

1.- Ez, ez dut inon ere entzun.
2.- Oso inizatiba polita dela deritzot; nik euskara jakingo banu seguraski bertara joango nintzateke.



Oskar Otxoa de Retana.
Elektrikaria

1.- Bai, banekien.
2.- Oso ondo pentsatuta dago.




Blanca.
Albaitaria

1.- Ez, ez nengoen jakinaren gainean.
2.- Noski, ados nago.



Ignacio Irazabal.
Administrari

1.- Bai, izan dut inizatiba interesgarri honen berri.
2.- Oso ideia ona dela uste dut.



ANITURRI INSTITUTUA SALVATIERRA-AGURAIN

**LANBIDE
HEZIKETAKO
ZIKLO
FORMATIBOAK
D EREDUAN,
IKASGAI
GUZTIAK
EUSKARAZ**

Erdi Mailako Heziketa Zikloa:

**MAKINERIA ETA LINEA-EROABIDEEN INSTALAZIO
ETA MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA.**
D eta A ereduak.

Goi Mailako Heziketa Zikloa:

MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA.
D eta A ereduak.

- HOBETUZek homologatutako ikastetxea.
- IKASLAN era elkartutako ikastetxea.
- LANGAIren ikastetxe laguntzailea.

Aurrematrikula: Ekainaren 1etik 12ra.
Matrikula: Uztailaren 2tik 6ra.

Aniturri BHI.
Galzar, 4. Agurain.
Tf: 945 300400.

E.mail: 010046aa@hezkontza.net.

GEU aldizkarian iragarritz, EUSKARA bultzatu.

MILA ESKER! Iragar zaitez! 945 22 21 53



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ




BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK



Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Egurditan, astelehenetik ostialara

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33



Izozkiak



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

Imprenta / Inprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

BEGIAK ARIMAREN
ISPILUA DIRA ZURE
BETAURREKOAK
MODAREN ISLA

EGUZKITARAKO
BETAURREKOEN
BILDUMA BERRIA

USTE DUGU EGUZKITARAKO
BETAURREKOAK EZ DIRELA
OSAGARRI HUTSA. HORREGATIK,
HEMEN, ZURE ESTILORA,
BEHARRETARA ETA POLTSIKORA
GEHIEN EGOKITZEN DIRENAK
AURKITUKO DITUZU.
MENDIA OPTIKA-MULTIOPTICASEN
GUZTIAK DITUGULAKO, ZURE BEGIAK
MODAN EGON DAITEZEN. ETA GAINERA,
GALDETU GRADUATUTAKO
EGUZKITARAKO BETAURREKOETAN
9.400 PTA.TIK (56,50€) AURRERA
DITUGUN MODELOEZ.

www.multiopticas.com

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK...

PRINTZE TXIKIA

(Antoine de Saint-Exupéry)

Itzulpena: Patxi Zubizarreta



ELKARLANEAN

Antoine de Saint-Exupéry XX. mendearekin bateratsu jaio zen (1900-VI-29), Lyon-en, antzinako familia aristokratiko baten altzoan. Laster aitarik gabe geratu bazen ere, oso haurtzaro zoriontsua izan zuen izebaren gazteluan, Saint-Maurice de Rémsen-en. Handik gertu bazen aerodromo bat, eta badirudi hantxe piztu zitzaiola hegazkinekiko grina, bertako pilotu batekin hegaldatu zen egunean. Artean gazteegi, izarek bi hegaldia egin, eta bizikletari erantsi zizkion. Baina gero, istripuak gorabehera, zazpi ahalak egingo zituen hegazkinetatik ahalik eta hurbilen egoteko: izan enpresa pribatueta, izan posta zerbitzuan, izan armadan (ezin dugu ahortzi idazlearen bizialdi laburrean zehar bi mundu gerra piztu zirela). Alabaina, hegazkinak ez ziren bere pasio bakarra izan eta esperientzia haiek guztiak liburuetan jaso nahi izan zituen: Gaueko hegaldia, Hegoaldeko posta, Gizakien lurra, Gerra pilotua... Baina bere bibliografian bada besteak ez bezalako liburu bat, Frantzia Alemaniaren mende zegoen garaian, EEBBetan, Long Island-en idatzia: *Printze Txikia* (1943).

Abenturak alde batera utzirik, liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatu eta poetikoa eskaintzen digu; haztearekin batera, haurtasuna bertan behera ez uztea proposatzen digu, baldin eta haurtasuna galderekin, irudimenarekin, xalotasunarekin, benetakotasunarekin lotzen bada. Horregatik guztiagatik, haurrentzat baino gehiago, helduentzat idatzi den haur baten historia irudi dezake, edota hurrek helduekin batera irakur dezaketena. Bestalde, jakitunek Saint-Exupéryren alter egoa ikusi uste izan dute bai narratzailearengan bai, batik bat, *Printze txikiarengan*; halaber, arrosa emaztearekin identifikatu dute, eta badirudi egileak hari eskaini nahi izan ziola *Printze txikiaren* bigarren partea, baina asmo hori hutsean geratu zen, zeren, Frantzia menderatuak eta hegazkinekiko grinak hartaraturik, pilotu idazleak azken hegaldi bat egin baitzuen Grenoble eta Annecy-ko eskualdeak fotografiatzeko (1944-VII-31). Ez Saint-Exupéryren hegazkina ez gorpua, *printze txikiarena* bezalaxe, ez ziren lur gainean agertu.

LIBURUAREN ITZULPENA PATXI ZUBIZARRETA EGIN DU.

ALDIZKARI BERRI
BAT KALEAN:

ESETÉ

- Aldizkari kulturala. Joera berriak.
- AMASTÉK argitaratua.
- Egungoa, gaur egun aurki daitekeen eskaintzaren osagarria, publiko zabala eta kritiko batengana iristeko asmoaz.
- Momentuz Gasteiz, Bilbo eta Donostian banatzen da.
- Hiruhilabetekaria. Ale bakoitzeko gai bat; 1. alea: 3, 2, 1... CONTACTO!!!

Informazio gehiago:

944 233 248

info@amaste.com

EKAINAK 5, ASTERTEA • FLORIDA KULTURA ETXEAN

- 'PRINTZE TXIKIA' Hitzaldia liburuari eta egileari buruz.

*Hizlariak:

- Patxi Zubizarreta - Juan Kruz Igerabide

Ordua: 16:00etan. -Egun osoan zehar liburuari eta egileari buruzko erakusketa bat egongo da Florida Kultura Etxean.

ELKARLANEAN LEHIAKETA

MAIATZEKO IRABAZLEA:

NEREA GALLASTEGI CAMARA. ZORIONAK!!

ERANTZUNA: LA BOTICA

EKAINEKO GALDERA:

ARABERA KULTUR TALDEAK MAIATZEAN GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO HISTORIAREN II. IHARDUNALDIK (HITZALDIK, MAHAINGURUA, OMENALDIA) ANTOLATU ZITUEN. ZEIN IZENBURUEAN? NORI EGIN ZITZAION OMENALDIA?

Bidalguzue erantzuna. Pedro Asua kalea 2 - 3.a - 01008 Gasteiz edo: geugaste@grn.es

albeniz
Liburudenda-ren eskutik

Eskuetan duzun ale honetatik aurrera eta ireki berria den txoko honetan kulturarekin zer ikusia duten ideia zehatzak proposatuko dizkizuegu. Kulturaren gainean iritzi asko jasoko ditugu dudarik gabe. Euskal kultura zer, nolakoa eta zertan datzan une honetan interesgarria daiteke. Eta honekin batera, ideiak aurrera eramateko, tresnak eta baliabideak derrigorrezkoak zaizkigu.

Zerbait hasi da mugitzen Gasteizen.

Zerbait hasi da aldatzen.

Zerbait hasi da.

NON BAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



**BEIRATE
ESTUDIOA**

MIKEL
DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ


Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

hotel-jatetxe-taberna

"LOS ROTUROS" (Maeztu): natura eta atsedena



Izen bitxia du Maeztun duela gutxi ireki duten hotel-jatetxe-tabernak: Los Roturos. Javik eta Katyak euren negozio berriari izen hori jartzea erabaki zuten, garai batean Arabako zonalde horretako hainbat lur eremuren izendapena gogoan hartuta. Hiru solairutako hotela, bi jatetxe eta taberna-katefetegia. Hori guztia eskaintzen du Los Roturosek, baita naturaz gozatzeko parada ezin hobeare.

Iazko urrian ireki zituen ateak etxe handi honek. Garai batean luberriketatik ateratako uzten bilgunea izandako eraikina, egun landa-hotel, jatetxe eta taberna bilakatu da. Hain justu ere, hortik datorkio izena etxeari: Los Roturos. Laborantza egiteko mendiari kendutako lur zatiak ziren roturoak, Izkiko parke naturala inguratzen duten herrien artean banatuak (Korres, Urturi, Durruma, Kintana, Maeztu, Apinaniz, Arluzea eta Markiz).

Javi eta Katya bikoteak denbora dezente eman du etxea eraberritzen, zerbitzu hirukoitza eskaintzen duen etxe polita egin ahal izateko. Javik argi asko zuen Maeztu leku egokia zela horrelako etxe bat egiteko. "Izkiko parkea eta golf zelaia alboan izanda ere, ostalaritza arloan eskaintza gutxi zegoen inguru honetan.

Horregatik erabaki genuen etxe hau irekitzea", azaldu digu. Asturiasen bi urte igaro zituen Javik eta han nekazal-turismoaren gorakadaz jabetu zen, eta pentsatu zuen ideia ona izan zitekeela antzeko zerbait egitea bere herrian. Eta hala egin zuten. Iazko otsailean ekin zioten lanari eta hamar hilabete igaro ostean Los Roturosek ateak zabaldu zituen.

HOTELEAN, ETXEAN BEZALA

Zortzi logela ditu landa-hotelak, hiru bikoitz eta bost banako. Horietako bat, gainera, elbarri-tuentzat egokituta dago. Logela bakoitzak luberriketa (roturo) baten izena dauka (izen hauek ezagutu nahiez gero, badakizue, bertara zaitezte...). Solairu berean egongela abegitsua dago, sukalde txiki batekin, ostalariak bertan gosaria egin eta atsedean har dezaten. Azken batean, hori baita Katya eta Javiren helburua, asteburu bat edo egun batzuk pasatzera doana etxean bezala sentitzea, erosotasun eta naturaltasun osoz. "Hotel bat baino etxekoagoa da gurea", halaxe definitzen du Javik. Aitzitik, aitortzen du jende gehiago erakarri behar dutela hotelera, jatetxea astebururo betetzen bada ere, ez baita gauza bera gertatzen hotelarekin. Hotelera doan jendea batik bat gipuzkoarra eta bizkaitarra izaten da, eta Estatutik, berriz, Madril eta Kataluniakoak dira bisitari arruntak, golf zelaia erakarrita, non-bait. Bikoteak onartzen du gustatuko litzaikeela bertako jendeak asteburuak edo oporrak bertan igarotzea, baina gauzak patxadaz hartu behar direla jakin badakitez, itxaropentsu ageri dira etorkizunari begira, eta espero dute

apurka-apurka gero eta bisitari gehiago izatea.

Gainera, jatetxeak izan duen harrera onak animoz bete du bikotea. Jangelei dagokienez, aipatu egin behar da dauden biak, beheko solairuan kokatuak, deko-razio tradizionalaz zein modernoaz txukunduta daudela eta ia astebururo jendez gainezka egoten direla. 80 bat lagunentzako lekua dute jangelek, eguneko menua eta karta aukeran dagoelarik. Katyak azaltzen digunez, jatetxera gehienbat Arabako jendea hurbiltzen da. Dioenez, asteburu eta jai egunetan naturaz gozatzeko irteerak egiten dituzten arabar askok bazkaltzen dute Los Roturosen.

PARAJE ERAKARGARRIAK

Etxearen kokapenaren inguruan ere laudorioak baino ez dituzte Javik eta Katyak. Inguruko parajeen edertasuna nabarmentzen dute, izan ere Izkiko Natur-parke-tik gertu dago Maeztu eta Urturiko golf zelaitik 17 kilometrora baino ez. Arabako Errioxa 30 minutura dagoela gogoratzen digute, bertako bodega, trikuharri eta gainontzeko berezitasunekin. Horretaz gainera, Faiduko VIII. mendeko kobazulo artifizialak bisitatu daitezke, bai eta Markizeko (Bernedo) kobazuloak ere. Hori

"Hotel bat baino etxekoagoa da gurea"



Javik eta Katyak inguruko parajeen edertasuna nabarmentzen dute





Los Roturos etxeak lasaitasuna, kalitatea eta atsedena eskainiko dio hurbiltzen den edonori

guztia gutxi balitz, arteaz gozatzeari gustuko dutenek Estibalizko Monastegia ikus dezakete, Maeztutik hamar minutura baino ez baitago. Inguruko parajeen errepasoarekin bukatzeko, Garaioako Parkeko hondartza artifizialak eta Mendixurreko hegaztien behatokia herritik gertu daudela gogoratzen du Javik.

"Asteburu oso naturala igarotzeko aukera dago hemen", diosku Katyak. Naturarekin harremanetan egoteko parada ezin hobea eskaintzen duen zonaldea da Maeztukoa, eta Los Roturos etxe-

ak lasaitasuna, kalitatea eta atsedena eskainiko dio hurbiltzen den edonori.

EDURNE BEGIRISTAIN

ARG.: EDORTA SANZ

Informazio gehiago nahi izanez gero edota erreserbaren bat egin nahi izatekotan deitu telefono zenbaki honetara:
945 410 250

ZERBITZU ESKAINTZA ZABALA

Hona hemen Los Roturosek bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzuen zerrenda:

- ✓ Baserri giroko hotela. Kanpoko aldera ematen duten 8 gela, bainugela eta berogailuarekin.
- ✓ Egongela. Office eta Telebista.
- ✓ Igogailua.
- ✓ Taberna-kafetegia. Terraza.
- ✓ Jatetxea. Bi jangela, 80 pertsonarentzat.
- ✓ Menua eta karta.
- ✓ Sukaldaritza tradizionala eta denboraldikoa.
- ✓ Berezitasuna: babarrunak eta arkume erreka.
- ✓ Eskualde osoko turismo-informazioa.



LOS ROTUROS

**HOTELA
TABERNA
JATETXEA**

BEREZITASUNAK

- Arkume erreka
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataloak
- Enpresa bilerak

MAEZTU

Tlf.: 945.410.250

Errementari (Herreria) kalea, 10.

e-mail: losroturos@telefonos.es

web orria: usuarios.tripod.es/losroturos

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

Garagardotegia

ASTE OSOAN
IREKITA
(Astelehenak
izan ezik)

*Gerentzia
berria*

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82 • Gasteiz



adaka
madinabeitia



Floridako altxorra !

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ



EMAIZE SEXOLOGIA ELKARTEAREN ESKUTIK

Errege Atea 3, 4. Bulegoa - 01001 Vitoria-Gasteiz - Tel.: 945 26 58 96 - e-mail: emaize@euskalnet.net

GAZTEENTZAKO SEXUALITATE ASEXORIA

Gaur egun badirudi sexualitateari buruz dugun informazioa oso zabala dela eta sexualitatearen adierazpen desberdinen aurrean permisibitate handiagoa dagoela.

Komunikabideetan (telebista, zinea, prentsa, irratia...) sexuarekin lotutako gaiei buruz hitz egiteko tarte bat izaten da beti, produktuak saltzeko aitzakia izaten da askotan... eta beste pertsona erakartzeko zer egin behar dugun, zein gorputz izan behar dugun, nola jokatu behar dugun etab. esaten digute.

Jokaera sexualarekin lotutako mezu eta eredu estereotipatu, kontrajarri edo deformatuak jasotzen ditugu etengabe, gure errealitatearekin zerikusirik izaten ez dutenak.

Adiskideen artean, adin jakin batean sexu harremanik izan ez baduzu arrarotzat hartzen zaituzte eta, gainera, esperimentatzen hasterako guztia jakin behar dugula dirudi.

Etxean ez zait gai hauek planteatzea bururatu ere egiten, oso urduri jartzen baitira eta, gainera... lotsatu egiten naiz.

Eskolan prebentzioari garrantzi handia eman behar diogula esaten digute

behin eta berriro, baina preserbatibo bat erabiltzen jakiteak ez ditu nire zalantza guztiak argitzen.

Eta sexu bereko pertsonenganako erakarpena sentitzen baduzu edo beste moduren batean estereotipoa hausten baduzu, gero eta konplexuagoa bihurtzen da kontu hau.

Barne bizipen horietan pertsona bakoitzak, ahal duen moduan, jokaera eredu berri hori bere errealitateira egokitzeko ahalegina egin behar du.

Sentitzen ari naizena argitzeko beharra sentitzen dut batzuetan, zailtasunak sortzen dira... eta ez da harritzekoa, egoera zein den kontuan hartuta.


Zerbitzu hau gazteei zuzendutako sexualitate aholkularitza zerbitzu bat da eta 1997. urtetik dago martxan Emaize Sexologia Elkartearen eskutik. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuak bultzatuta sortu zen eta horrelako gaiei erantzuten die. Sortu zenetik 6.000 pertsona inguruk adierazitako kezkei erantzun diegu:

... ez dakit gertatzen zaidana normala den; kondoia apurru zait; nola jakinago dut prest nagoen?; berehala amaitzen dut!; elkar maite badugu zergatik

ez gara ondo konpontzen?; normala al da horrenbeste masturbatzea?; bai, zera, nola izango zara ba, homosexuala?; lehenengo aldian haurdun gera al zaitezke?; Gasteizen lesbiana gehiago ba al dago?; beldur naiz jakingo ote duen; heterosexuala izatea normala al da?; nola hitz egin dezaket gai honi buruz nire semearekin?; transexuala naiz; nola esango diot kondoia daukadala?; grano txiki batzuk irten zaizkit; zein da metodo antikonzeptiborik onena?; biharamuneko pilula ematen al duzue hemen?; ez dakit haurdun nagoen; nora joan behar dut hiesaren froga egiteko?; oso txikia daukadala uste dut!; plazer handia ematen dit!; ez dut inoiz orgasmorik izan; hau edo bestea izango ote naiz?; horri buruz lan bat egin behar dut; ni bezalakoa den jendea ezagutu nahi dut; horri buruz hitz egingo duen liburu bat behar dut; egia al da entzun dudana?; aspaldian ez dut ezer sentitzen...

Zatoz gu ezagutzeroa, Asexoria Sta. Maria kalean 11. zenbakian (Landatxo aurrean) dago eta astelehenetik ostiralera dago irekita, 18:30etatik 20:30etara.

Tel.: 945 16 15 83.





GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (Kutxi), 23

Euskara bultzatu nahi?...



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADMIOMAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43



etxean jaso nahi dut



Izena		
Abizenak		
Helbidea		Tfnoa:
P.K.	Herria	Herrialdea
Bankua/Kutxa		Sukurtsala
Kontu zk. (20 digitok)		Titularra

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a · 01008 GASTEIZ



Araba Euskaraz-2001 Euskararen hazia Trebiñon

Ikastolen elkarteak Trebiñoko Argantzun herria aukeratu du historiako 21. Araba Euskaraz antolatzeko, XXI. mendeko lehena. "Hazteko erein" lelopean ospatuko den Arabako ikastolen jaiak 50.000 lagunetik gora bildu nahi ditu herrialdearen bihotzean, bertan haur hezkuntzako gelak egiteko dirua biltzeko helburuarekin, besteak beste.

Ekainaren 17an Argantzunen egingo denak gauza guztien gaineratik jai bat izan behar duela azpimarratu du Marta Martinez aurtengo Araba Euskaraz-eko arduradun nagusiak, baina Trebiño aukeratzea ez da kasualitate hutsa; izan ere, eta egoera administratiboa dela medio, euskarak eta hezkuntza euskaldunak ez dute bertan inolako babes legalik. "Trebiño leku berezia da arabar eta euskaldunontzat,

egia da; eta horrek jende gehiago biltzen laguntzea espero dugu", aitortu du Marta Martinezek.

Bestetik, Argantzun eta Trebiñon ikastolarik ez egoteak antolatzaileen lana zaildu du, "ikastola batek ematen duen azpiegiturarik ez dagoenez, ni neu naiz antolatzailea, nik egin behar ditut lan gehienak eta, horregatik, egitaraua apur bat murriztu egin dela aitortu behar da". Beraz, Araba Euskaraz-en eskaintza kulturala beste batzuetan baino murriztagoa da aurtengoa, "Vital Kutxarekin batera pailazoen emanaldiak antolatu ditugu, baina besterik ez". Eta aurtan ez da materiala saltzeko dendarik egongo, "lokal bat alokatzea oso garestia delako, eta han egoteko pertsona bat behar delako, baina Armentia Ikastolan ditugu gauzak salgai".

Haur hezkuntza euskaraz

Ekainaren 17an lor daitezkeen diru irabazpenei buruz kalkulurik egin ez duten arren, ateratako dirua zertan inbertitu oso argi du Arabako Ikastolen Federazioak: "Herrialdeko zentroek inbertsioak egin ditzaten erabiliko da, baina asmo nagusia Trebiñon bertan haur hezkuntzako gelak antolatzea da". Federazioak umeentzako eskola txikia 2002-2003 ikasturterako prest egon dadin nahi du.

Zailtasunak zailtasun, eta bertako hezkuntza sistema Gaztelako erakundearen esku egonda ere, Trebiñoko biztanleak aspalditxo murgildu ziren euskalduntze prozesuan: "Datu zehatzak ez ditugu, baina ziur dakigu hango umeak Gasteizko eskoletara datozela eredu euskaldunetan ikasteko, eta helduek ere euskaltegietan izena ematen dutela argi dago".

Euskara, ikastolak eta haurrak protagonista

Araba Euskaraz-ek aldarrikapen kutsua duenik ezin ukatu, are gehiago hizkuntzaren irakaskuntzaren inguruan Gasteizen eta herrialdean egondako azken eztabaidak kontuan hartuta, eta jai egunerako zita Trebiñon egin dela jakinda. Hala ere,

"herrialdeko ikastoletako jaia eta familientzat -haurrak eta gurasoak- pentsatutako jaia" dela dio Marta Martinezek. Helburua argi izanda, egitaraua ume eta gazteenen neurria eginda dago.

Trebiñoko Argantzunen egingo da jaia, herriaren inguruetan zehazkiago esateko, ibaiaren ondoko bost kilometroko zirkuituan. Zirkuituak hiru gunek izango ditu: lehenengoa, "familiarrena" izango da, lehen orduan pailazoak egongo direla, eta geroxeago Patxi Villamor eta Gorka Knörr-en kantaldiak; azken festa ere gunek horretan izango da, Sorbeltz taldearen esku. Bigarren gunean haurrak izango dira protagonista nagusienak, eta beraientzako egitarau osoa ETBk antolatu du: Betizu, Betimu programakoekin jolasak, DJ baten aktuzioa... Haurtzarora atzean utzitakoek ere beren lekua izango dute, hirugarren gunean batez ere: bertsolariak arituko dira gazteenen esparruan, baita Gozategi, Trikitixa Kontrairi eta Asgarth musika taldeak ere. Gainera, euskaldunok edozein jai ardoa edateko aitzakiatzat hartzen dugula pentsatuta edo, ardo-dastatze bat prestatu da gazteenei Errioxako mamiaz tentuz gozatzen erakusteko.

ETBrekin elkarlana da aurtengo ikastolen festaren egitarauak dakarren berritasun nagusia, "horrelako zerbait egiten den



lehen aldia da, eta ideia ona izateaz gain oso ondo datorkigu, noiz eta aurtan, inoiz baino azpiegitura gutxiago dugulako".

Bestetik, eta Argantzun Udalaren proposamenaz meza egingo da bertako elizan goizeko 9etan, bildutakoek elizako erretaula zahar ederra ezagutzeko aukera izan dezaten. Arratsaldean pilota partiduak egingo dira herriko frontoian.



Trebiño aukeratzea ez da kasualitate hutsa

Trebiñoko biztanleak aspalditxo murgildu ziren euskalduntze prozesuan

Bertan haur hezkuntzako gelak egiteko dirua biltzea, xede nagusia

Eta honekin batera Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del euskera en Alava erakusketa Argantzunen Ekainaren 4tik 17ra (Elizan edo Udaletxean)




KIROL ARABARRA GAILURREAN



AKOBetik ZUTABEra

DOLORES SANZEKIN, historia eta arte ondarea zainduz

Gutxi gora-behera 35 bat lagun aritzen dira egun Akobe eta Zutabe elkarten baitan Arabako kultur ondasunak, historia eta arte ondarearen berriztapen eta artapen lanetan. Donostiako eta Iruñeako jendea dagoen arren, ekimen honetan parte hartzen duten gehienak arabarrak dira. Dolores elkarten sortzaileetariko bat da, "Ondarea zaintzen eta berritzen duten elkarte gutxi da Estatuan: Galizian bat, Valentzian bat, Katalunian beste bat eta baita Gipuzkoan ere. 1997an Araban zaharberritze lanak egiten genituen profesional talde bat geunden, eta jendeari ondarea zer den irakastea helburu zuen elkarte sortzea proposatu genuen". Hasieran Akobe izenaz profesional bezala osatutako elkarte sortu bazuten ere, "hau da, bazkide izateko titulua edota arloan lizentziatua izatea beharrezkoa da", handik urtebetera aditua izan beharrik ez zegoen Zutabe elkarte jaio zen. Egun Akobe (elkarte izateaz gain) Zutaberen ekimenez kaleratutako urtekaria dugu.



- ZUEN HASTAPENETATIK LAU URTE PASA DIRA. ZER LANDU DUZUE TARTE HONETAN?

Hasieratik Araban ondareari dagokionez dagoen aberastasuna erakutsi nahi izan dugu. Izan ere, gutxi batzuek dakite beren herrietan zer daukaten; adibidez, orain arte herri askotan elizetan zeuzkaten gauzak saldu dituzte. Horregatik, daukatenaren eta daukagunaren kontzientzia piztu nahi dugu eta horretarako urtekaria kaleratu eta ikastaroak antolatzen ditugu. Ikastaro ezberdinak antolatzen dira gaian adituak diren nahiz ez direnetzat.

- NOLA EZAGUTARAZI DUZUE ELKARTEA?

Aldizkariarekin batez ere, urtekaria da eta iaz Aldunditik lehenengoz jaso genuen milioi bateko dirulaguntzarekin ekin diogu, gainontzeko diruarekin ikastaroak antolatu ditugula. Kideen kuotak eta aldizkariko publizitateak ere gure helburuak aurrera eramateko aukera eman digute, baina oraindik beste hainbat gauza egin nahi dugu. Izan ere, aldizkaria zabaldu nahi dugu, Estatu mailan horrelako aldizkaririk ez baitago kasik, horregatik, nahi izanez gero Estatuko edonori bidaltzen diogu; bestetik, interesatua dagoenak gure tailerretan ere jaso dezake. Egun 3. alea (2. zbk.) prestatzen ari gara, orain arte zero eta bat zenbakiak kaleratu ditugu. Orain Zutabe zabaldu nahian gabiltza, jendeak parte har dezan nahi dugu; bestaldetik, umeei monumentuak zaintzen ikasteko ikastaroa prestatu nahi dugu, uler dezaten graffitiak horretarako dauden paretetan egin daitezkeela, monumentuetan baino hobe.



- ADITUA EZ DEN NORBAITEK ZEIN MODUTAN HAR DEZAKE PARTE ELKARTEAN?

Akobe profesionalen elkartearen bitartean, Zutaben edonork barnera daiteke eta, ikastaroez gain, aldizkarian ere idatz dezake. Hau da, "SOS Patrimonio" deritzon saila dago: zure herrian zerbait egoera txarrean bada salaketa egiteko tarte duzu hau eta konponketa bidean jarri ahal izateko deia zabaltzeko modua. Berrizteko dirulaguntza eskatzeko nora jo behar duzun inguruko argipenak ere jaso ditzakezu txoko honi esker.

- IKERKETA LAN MARDULA ZUENA...

Guk gure aldetik gauzen berri eman dezakegu eta horiek aztertzeraz joan, bestetik aurkikuntzak ezagutarazten dizkigute eta gu horra goaz lanera. Araba mailan Eliza eta Aldundiaren arteko hitzarmena dago zaharberritze lanak aurrera eramateko. Aurten Uribarri Dibinako elizan egon gara ikastaro batean eta elizaren egoera dela-eta apaizarekin hitz egiten "SOS Patrimonio"n zerbait egiteko salaketa egingo zuela erabaki eta..., horrela pixkanaka-pixkanaka aritzen gara.



Fitxa teknikoa

- Izen-abizenak:
Dolores Sanz Gomez de Segura
- Jaiotze data:
1970eko apirilaren 19an
- Jaioterria:
Gasteiz
- Ikasketak:
Arte Ederretan lizentziatua, pinturan espezializatua, Madrilgo Eskolan Zaharberritze masterra, eskulturan aditua izanik 3 urtez Italian egon zen (horietako bi Espainia Akademiako beka bati esker, hirugarrena Diputazioak emandako beka batekin). Egun, batez ere Aldundirako, zaharberritze lanetan dihardu, partikularrentzat lan handirik ez dago eta.

**- NAHIZ ETA PROFESIALENA LANA
IZAN GERTA AL DAITEKE ZAHARBERRI-
TZE LANETAN EZBEHARRAK IZATEA?**

Bai, gerta daiteke eta inoiz ere gertatu da. Noski gure lanari ekin baino lehen ikerketak egin behar ditugula; adibidez, San Pedroko ataria zaharberritu baino lehen bagenekien 7 kolorez osatua zegoela eta horri esker garbi genuen non gelditu berriztapena. Honetaz gain, esan behar dut gure lanak duen politena dela artea leku guztietatik ikusten dugula eta ez historiagile batek ikus dezakeen bezala; beraiek lurretik egiten dute eta guk aldarmioetatik, eta bertatik artistek bere garaian leku ezkutuetan egindako sinadurak eta marrazki-
txoak ikus daitezke.

**- EGUN GASTEIZEN OIHARTZUN HAN-
DIA IZATEN ARI DIRA KATEDRAL ZAHA-
RREKO INDUSKETA LANAK; BERTAN ZABILTZATE?**

Indusketetan Akobeko jendeak parte hartu izan du, baina ez talde moduan baizik eta era pertsonal eta banaka. Baina etorkizunari begira elkarlana egitea gustatuko litzaiguke.

**- BADAGO ARABAN ARTEAREN EGOERAZ ARDURATZEN DEN
JENDEA?**

Gasteizen jende interesatua badago, esaterako AMBAkoak. Arazo bakarra irizpidearen kontua da, hau da, Andra Mariari besoa falta eta jendeak zaharberritu baino eraberritu nahi du, osoa mantentzea bilatzen du, eta guk egiten duguna errespetatzea da eta inolaz ere ez eraldatu, nork daki beso hori horrela edo bestelakoa zen?... Eta zentzu honetan Diputazioan Zaharberritze Sailan irizpidearekin lan egiten dutela azpimarratu behar da.



**- KURIOSITATEZ... ZER DA GURE
ONDAREARI BURUZ ARABARROI EN-
TZUTEAK HARRITUKO GINTUENA?**

Beno, ni San Pedroko atarian izan nintzen lanean eta jende askok ez daki ezta non dagoen ere. Eta ziurtasunez esan dezaket ez dela Europan gure honek duen bezalako polikromiarik duen besterik; honez gain, Arabako herrietako elizak oso aberatsak dira, gauza piloa dute txikiak izan arren. Bestetik, Gardelegi bere zaborteagiagatik ezagutzen dugu eta ez dakiguna da erretaularen atzean Errenazimentuko margoak agertu zirela.

**- LANBIDEARI DAGOKION KONTU BI-
TXIREN BAT...**

Oro har, zaharberritze lanean ari zarela esatean jendearen aipamena "restauración, que profesión tan bonita para una chica"

da, fina dela diote eta pentsatzen dute pintzelarekin aritzen garela El Prado museoan, errealitatea bestelakoa den bitartean. Bestetik, 35 gara eta egia da eta horietatik 5 baino ez direla mutilak...

- ETA HORREN AZALPENA...?

Sentsibiltate gehiago daukagulako izango da (...barreak...)...

JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL - ARG. EDORTA SANZ

**AKOBE ETA ZUTABE ELKARTEEI BURUZKO INFORMAZIO
GEHIAGO ESKURATU NAHI IZANEZ GERO:
TRATEGGIO, AIZTOGILE KALEA 71, BEHEA.
TELF.: 652.74.81.97**



**"Artearekiko kontzientzia
piztea bilatzen dugu"**

**"San Pedroko ataria
bezalakorik ez dago
Europa osoan"**

**"Arabako herrietako elizak
oso aberatsak dira"**





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

“Onartu behar dut, ‘tele-zaborra’ atsegin dut”

Ane Larrañaga Ormazabal bere gurasoentzat Errege Gaueko oparirik bereziena izan zen, 1979ko urtarrilaren 5. egunean bertan jaio baitzen gasteiztar hau. 22 urteko neska honen amets desiratuenen artean zinemaren munduan leku bat egitea dago, kamaren atzean, gidoi-lari ala zuzendari moduan. Zazpigarren arteaz gainera kirola ere maite du Anek, eta zein eta rugbya!

Aurten Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasketak amaitzeaz da Leioan eta, “hurrengo urtean, zer egin erabaki beldurgarria nolabait atzeratzeko” eta bere bidea eraiki asmoz, urtebetez Suedian bizitzeko mailetak prestatzen hasia da dagoeneko. Karlstad hirian ere rugby talderik omen da eta hara doa Ane bizipen berrien bila.

- **DUZUN BIZIARIK HANDIENA?**
- Zinema, tamalez garestienetakoa ere bai.
- **ETA BERTUTEA?**
- Juergazalea naizela.
- **ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?**
- Zoriontsua izatea.
- **JENIORIK BA AL DUZU?**
- Bai.
- **NOIZ KALERATZEN DUZU?**
- Ahalik eta gutxienetan kale-ratzen saiatzen naiz.
- **GEU-REN BERRIRIK BA AL DAUKAZU?**
- Bai, aspalditik gainera.
- **EGUNKARI BAT?**
- Ez dut egunkaririk gustuko, Euskaldunon Egunkaria beharbada.
- **PELIKULA ONEN BAT?**
- El Apartamento, Billy Wilderrena.
- **GUSTUKO AKTOREREN BAT?**
- Ingrid Rubio edo Ralph Fienes.
- **TELEBISTAKO PROGRAMARIK?**
- “Al Salir de Clase”. Onartu behar dut, “tele-zaborra” atsegin dut.

- **JAKI GOXOREN BAT?**
- Txipiroiak.
- **ZURE GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?**
- Nire oreztak.
- **OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?**
- Gasteiztik kanpo edozein tokitan, deskonektatzeko eta lagunekin ondo pasatzeko.
- **TXIKITAKO OROITZAPENIK?**

- “Pipi Calzaslargas”.
- **IDAZLEREN BAT?**
- Paul Auster.
- **DENBORA IZANEZ GERO, ZER EDO NORA EDO ZERTARAKO?**
- Bidaiatuko nuke, lagunekin juerga egingo nuke. Beharbada ez nuke ezer ere egingo, ala bai!, pelikula mordoa ikusi!
- **GASTEIZEN BIZIKO EZ BAZINA, NON BIZIKO ZINATEKE?**
- Askartzan bizi naiz, baina zergatik ez Londresen?
- **GASTEIZEK DUEN ONENA?**
- Giroa, jendea, “Kutxi”.
- **ETA TXARRENA?**
- Eskaintza kultural murrizta.
- **EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?**
- Orokorrean, ez.
- **ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ESATEA ZU HIL ETA GERO?**
- Lagun ona izan naizela.
- **GUSTUKO KOLOREREN BAT?**
- Berdea.
- **GOGOKO MUSIKARIK?**
- Pearl Jam.

AINHUA FERRON • ARG.: EDORTA SANZ



Ane Larrañaga

IRAKASKUNTZA EUSKARAZ

Bigarrenengan aurrera egin baietz!

Diocesanasek Lanbide Heziketako bi modulu euskaraz emango ditu datorren ikasturtean

Diocesanasek zentroak euskaraz ikasteko aukera emango die datorren ikasturtean Lanbide Heziketako ikasleei, Mekanizazioa eta Administrazioa eta Finantzak zikloak euskaldundu baititu. 2001-2002 ikasturtean, hortaz, bigarren saiakera egingo du eskolak, iaz goi mailako Administritzako D ereduko gela bat antolatzeko saiatu eta gero. Interesatuak ekainaren 1etik 12ra eman behar dute izena.

Mekanizazioa erdi-mailako heziketa zikloa da; Administrazioa eta Finantzak izenekoak, berriz, goi-mailakoa (gehiengo titulazio akademikoa duten 18 urtetik gorakotzat). Biek 2.000 klase ordu dituzte, bi ikasturtetan banatuta. Hogeita bat ikasle osatu ohi dituzte Lanbide Heziketako taldeak, eta Eusko Jaurlaritzako Hezikuntza

Sailak 15 ikasledun taldeak osa daitezkeen eskatzen du, gela hitzartuak izateko eta, beraz, ekonomikoki bideragarriak.

Diocesanasek Nieves Cano-n eman gogotzen D ereduko Mekanizazio ikasketak, eta Diocesanasek Molinuevon Administrazio eta Finantzak, Oskar Pedrosa bigarren zentroaren zuzendariak azaldu duenez. Azken hau ez da D eredu tradizionala, hirueleduna baizik: bi ikasturte batez bestekoa eginez, gaztelaraz ematen diren gaiak 2.000 orduen %48 pasatxo osatuko dute, ingelesezko orduak ia %15 izango dira eta euskarazkoak ia %37. Izena ematen duten ikasleek euskara eta ingelesaren gutxienez maila egiaztatu beharko dute, ikastaroa arazorik gabe jarraituko dutela ziurtatzeko.

IRAKASLEEN LANA

Izena ematen duten ikasleek dena prest aurkituko dute datorren

irailean, baina irakasleek lan bikoitza egin beharko dute, material didaktikorik ez dagoenez eskolak antolatu eta apunteak osatzeko. Amaia Ruiz, Paulino Etxebeste eta Iñaki Resa irakasleek lan gehiago egitea tokatuko zaiela aitortu dute erdi barrez eta erdi kexaka: "Elkarrizketa hasi baino lehen horretaz ari ginen, apunteak ondo prestatzeko ordu batzuk liberatzea eskatu beharko dugula pentsatzen".

Izan ere, Mekanizazioaren bost moduluak (ikasgaiak) eta Administrazio eta Finantzak-ek dituen zazpiak ikasteko liburutik aurkitzea zaila izango da, "zerbait egon badago, irakasgai ez oso espezializatu batzuetan adibidez, baina ezer gutxi. Gehiena guk prestatu beharko dugu".

Diocesanaseko zuzendaritzak ez du kontratazio berririk egin beharko, Pedrosak azpimarratu duenez, "irakaslearen ia %50 euskalduna delako, D ereduan lan egiteko gai; proportzioa handia-

Interesatuak ekainaren 1etik 12ra eman behar dute izena



goa da DBHko kurtsoetan lan egiten dutenen artean eta txikiagoa beste arlo batzuetan, baina oro har, plantila erdia euskalduna dela esan daiteke”.

Amaia Ruiz irakasleak iaz Administrazioa euskaraz emateko ametsa joaten ikusi zuen, ez zelako behar beste ikasle lortu: “Egun administrari izateko ikasketak ez daude oso ondo baloraturik gizar-te mailan, horregatik datorren irai-lean hasiko dena hirueleduna egin dugu, jendea erakartzeko”. Paulino Etxebestek, berriz, baikor begiratzen dio matrikulazioari, “aurten Mekanizazioan ditugun 16 ikasle euskaraz ikasteko prest zeuden, beraz, datorren ikasturtean neska-mutilak aurkitzea ezin da zaila izan”.

NESKA ETA MUTILAK

Mekanizazioa tradizionaliki gizonen esparru itxia izan dela aitortu du Etxebestek, “aurten ere 50 ikasle daude eta neska bakarra, taldeko onena zalantzarik gabe, hori bai”. Irakasleak neskak animatu nahi ditu, eta izena eman dezaten pisuzko arrazoiak eman ditu “mekanizazioa ikasten dutenen laneratzea 100%koa da, eta nes-



ken langabezia oraindik ere handiagoa dela kontuan izanda merezi duela uste dut”. Gainera, eta oraindik aurreiritzi okerrak dituztenentzat zehaztaper bat egin du: “Arlo honetan buru lana egiten da nagusiki, norbaitek uste badu gaitasun fisikorik ez duela izango lan hori egiteko ez dabil zuzen”.

Administrazioan, aldiz, neska gehiago dago, “baina aldea ez da horren handia, gutxi gora-behera %60 eta %40 izaten da proportzioa”, azaldu du Amaiak.

ZERGATIK B EREDUTIK A-RAKO JAUZIA

Diocesanaz zentroetako irakasleek B ereduan egondako ikasle gehienek erdi edo goi-mailako zikloetara pasatzean A-ra jotzen dutela sumatu dute, D eredu euskalduna aukeratu beharrean. Ziurtasun eza eta eskolak jarrai-

tzeko gai ez izateko beldurra omen dira ikasleek aipatu arrazoiak: “Behin maila batera iritsita daukaten euskara nahikoa ez den beldur agertzen dira, eta Lanbide Heziketan ez dago B eredurik, A eta D bakarrik”.

Gurasoek, berriz, “euskaraz ikaslea unibertsitatera pasatzekotan arazo izango ote den” galdetzen dutela azaldu dute Diocesanaseko irakasleek. Aita-amek lehenengo euskaraz, eta gero, unibertsitatean gatzeleraz ikasi behar izatekotan, ikasleak ondo erantzungo duen jakin nahi dute, “eta azken urteetan unibertsitatea euskaldundu dela egia da, baina oraindik ere bide luzea geratzen da, beraz, ikasle eta gurasoen kezkak uxatzea denbora kontua izatea espero dugu”.

LEIRE LPZ. DE ABERASTURI

ARG.: EDORTA SANZ

SANAS

“Oro har, plantila erdia euskaldun dela esan daiteke”





Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33

GASTEIZ



eguneko

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33. tfnoa. 945 25 02 39

Ka La MUA

TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde

Margolaria, 5

Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16

01008 Vitoria-Gasteiz

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



PITILIN GORRI

GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

XIXILU

JATETXEA


AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Errege atea, 9 • GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26

tfnoa: 945 28 81 47

GASTEIZ

KULKI BREITAINIAN (BREIZH)



Breitaiko Lesneven herrian, apirilaren 28 eta 29an joko tradizioalen eta kultur ezberdinen topagune izan zen. Katalunia, Flandria, Irlanda, Breitania eta beste herrialde askok parte hartu zuten. Euskal Herriko ordezkariak Gasteizko Kulki eta Badaiotz taldea, Arabako Birla Federazioa eta Ipar Euskal

Herriko Herri Kirol Federazioa izan ziren. Larunbatean Europako Joko Tradizioalen Elkarte osatu zen. Igandean joko askoren erakustaldiak burutu ziren. Honetaz gain, musika, dantzak, hizkuntzak..., kultura ezberdinak ezagutzeko aukera... "Estatuen gainetik kultura eta jendea".

KULKI (KULTURA ETA KIROLA) "ATERAIOZU ZUKUA" EGUNERAKO (APIRILAK 7-GEU ALDIZKARIAREN 100. ALEA OSPATUZ) JARRITAKO JOLAS GUNEA. UMEAK POZ-POZIK ARITU ZIREN!



"Herri kirolak eta herri jolasak kultura dira"

K U L K I

Tlf.: 945.139.699

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA ERAKUSKETA IBILTARIAK aurrera darrai

ARRAKASTA HANDIZ

Gasteiztik Laudiora, Laudiotik Agurainera, Aguraindik Maeztura, Maeztutik...

- **ARTZINIEGA**
(Maiatzak 21-Ekainak 1)
- **ARGANTZUN**
(Ekainak 4-17)
- **TREBIÑO**
(Ekainak 20-29)
- **ARAMAIO**
(Uztailak 2-13)
- **IZARRA**
(Uztailak 16-29)
- **GOPEGI, KOARTANGO, ERRIOXA, LEGUTIO...**

**Gure, zure, historiaren
atal garrantzitsu hau
ezagut dezagun!**

Erakusketak eragindako
zorrari eta gastuei eusteko:
3035 0056 43 056.0.03692.5
(EUSKADIKO KUTXA)

TRIBU CHAMAN

Musika eta bizitzarako apustu desberdina

Gaur egun musika mundua inguratzen duen konbentzionalismo eta komertzialtasunaren trabak gainditu nahian lurraren hainbat tokitako leinuen doinuak ekartzen dizkigute gogora Tribu Chamaneko lagunek "Supervivencia" izenburuko beren lehen diskoan, beraien erritmo eta hotsen oihartzunean mundua ulertzeko filosofia aitzindari bat aurki dezakegula.

"Lurra borobila, ilargia satellite bat dela eta ADNari buruzko teoriak kontatu dizkigu zientziak, ondorioz superstizioak baztertzera eraman gaituela; Chamana azken finean lurreko eta lur kanpoko gauzen arteko bitartekaria da eta horrek suposatzen duena galdu dugu. Gure musikak historiako momentu horretara bueltatzea bilatzen du, hots, izan ginenaren berreskuratzea bilatzen du". Kongek, kajoiak, djembe-ak, 'tamborek' tri-


buen urruneko hotsa gerturatzen digute gizarte lokartu baten irudimena esnatu nahian. Munduko biztanleak diren bost musikariek irudimen eta askatasun saioa Tribu Chaman-en itzalpean dakarkigute.

IRUDIMENAREN IRATZARGAILUA

Gaztetan murgildu zen Angel musika munduratu, egun ere egin ohi bezala, lagunekin batuz, eta horrela bateria jotzen hasi zen. "Denbora igarotzeko modu noblea da". Bere aitak pianoa jotzen zuen eta etxean betidanik disko bilduma handia ezagutu du, beraz, 15 urterekin baterian zeukan interesan aurrera egitea erabaki eta jada perkusio munduan aski ezagun bilakatu da Angel gaur egun.

Angel Lopez Leonek bere curriculum osatzen duten lanak bilatu gabe heldu zaizkiola azaltzen du: "Nire profesioaren

"Instituzioek kultura musikari trabak jartzen dizkiete, ateak ireki beharrean itxi egiten dituzte"



puntu honetara zeharkako modu batean heldu naizela esan daiteke, izan ere, ikasketen ondoren edonor oso prestatuta ateratzen bada ere, zerotik hasi behar du". Egun Mikel Urdangarinek dituen saioak osagarriak egiten ditu bere gainon-

tzeko proiektuekin, "jendea ezagutuz eta beraiekin joz orkestra batean izan naiz hiru urtez, horrek denbora libretea ahalbidetu du eta, ondorioz, proiektu berrietan aritu gara, honako hau bezala".

Josune Velez de Mendizabal-Arg.: Edorta Sanz

- **TRIBU CHAMAN:** Angel Lopez Leon, Nick Twilley, Raul Romo, Iñaki Bruña, Aitor Garcia.
- Angel Lopez Leon Villa del Mar-en (Txile) jaio zen 1967ko maiatzaren 18an. Aita arabarra izanik, bera txikia zenean Gasteizera bueltatu ziren.
- Zaletasunen artean, irakurketa, natura eta kirola. Umetan eta gazte(ago)tan korrikalaria izateko prestatzen aritu zen, 9 urtetik 21 urtera bitartera hain zuzen ere. Hor nonbait musika eta kirolaren arteko harremana aurkitu zuen, "Musika eta korrika egitearen arteko berdintasuna erritmoan datza, musikan ezezik korrikan ere erritmoa kontuan izaten dela".
- Egun Angel perkusioaren munduan erreferentzia garrantzitsua da Gasteizen.
- Proiektu desberdinetan dabil: Tribu Chaman, Mikel Urdangarin, Kesengue-Kesengue..., besteak beste

"Hemen Frankismoak eragindako hutsune kultural handia dago"



Hutsaren aurkako apustua

• BERAZ, NOLA DEFINITUKO ZENUKE TRIBU CHAMAN?

Esperientzia askoren bat-bateko emaitza da, hau da, urtean bitan edo leku ezberdinetan bizi garen lagun batzuk batzen gara elkarrekin jotzeko eta batek bestearengandik ikasteko. Egun batean zerbait desberdina egitea erabaki genuen, gure bilera intimoetatik atera eta gure erritmoa ezagutzera ematea, alegia. Talde hau anonimizat jo dezakegu, bakoitza leku batean bizi delako eta jotzeko denak biltzea zaila delako; horregatik, talde konbentzional batean pentsatzea ezinezkoa da. Bakoitzak tresna bat joz parte har dezake eta, hortaz, aurpegi edo irudi zehatz batek ez du zertan islatzen taldea. Istorio hau beste pertsona batzuekin mugi daiteke eta konbentzionalismoaren trabak menperatzen ditu.

• ZUEN LEHEN DISKOA KALEAN DA JADA, SUPERVIVENCIA. ZERI BA DIOZUE EUTSI?

Musika, artea eta kultura bezala, estruktura komertzialen menpe dago, merkatal gune handi horien monopolioaren pean egoteari aurre egin nahi izan diogu eta disko hau apustu bat da; gure kabuz zerbait ateratzeko gai garen apustua. Hor ikus baitaiteke zenbat diru mugitzen den eta horretatik autoreari heldzen zaiona; nik gutxi eta ondo nahiago dut lan egin asko eta gaizki baino.

• BERAZ, ZERI ABESTEN DIOZUE?

Bizitzari abesten diogu (barreak)... ingelesez egiten dugu oso modu tribalean... Poesia da, adiskidetasuna... Musika entzunez gero zentzua dauka, 12 kantak jarraian entzun daitezke mozketarik gabe...

• ZEIN-NOLAKO ERANTZUNA ESPERO DUZUE?

Arraroa da, gutxiengo bati gustatu ko zaion zerbait... Ez dakit zein izango den izango duen isla



baina... alternatiboa da, gogoeta izpiritualetan hausnarketa mentala egiteko zerbait, naturarekiko harremana eta, azken finean, hain materialista den mundu honetan existitzen diren sentimenduak.

• ZER IRIZTEN DIOZU GASTEIZKO EGUNGO EGOERA MUSIKALARI?

Instituzioek kultura musikalaria trabak jartzen dizkiete, ateak ireki beharrean itxi egiten dituzte, nor zaren galdetu eta gero gerokoak, modu librean aritzen den edonor beti gaizki begiratu dago. Daukagun errealitatea atzoko hereditentzia da eta hemen Frankismoak eragindako hutsune kultural handia dago; 80ko hamarkadan ateak ireki zirenean "harrapatze" handia ekarri zuen musikak, eta oraindik asko dago ikasteke.

• ZU HASI ZINEN MODUAN EGUN GAZTE ASKO DIRA GASTEIZEN MUSIKAN ARITZEN DIRENAK...

Arnasteko eta integraturik sentitze ko, bizirik nagoela sentitzeko, musika aurkitu dut, zorte hori izan dut. Nik beste pertsonekin aritzean ikasi dut eta horrela asetzen gara; gure legatua uzten dugu atzetik datorrenak kaka besterik aurkitu ez dezan.

Hala bedi.

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitez !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia



Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Dalvez
argitarazleak

maketazioa eta diseinua

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ALDIZKA
RIAKTRI
PTIKOAK
GEHIGA
RRIAKEG
UTEGIAK
LOGOTIP
OAKINPR
ESIOAUR
REKOAK
ARTELAK
MAKETA
ZIOLANA
KIRUDIA

Diaz de Olano, 22 behea
01008 GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

**... izan zaitez
harpidedun!**

**ikastaro
trinkoak**

bai & by
land

Florida kalea, 8 • 945 150 155

GEU ELKARTEAREN


ESKUTIK...

KULTUR ERROTA

KOLDO AMESTOY (bere azken lana)

EKAINAK 19. 20:30ETAN

EL PARRAL TABERNAN



ADI EL PARRAL TABERNAKO AGENDA
KULTURALARI: ASTEARTERO, 20:30ETAN...
KONTZERTUAK, ERREZITALDIK,
ANTZERKIA...

- EKAINAK 5: SUKUMA PERKUSSION (GASTEIZ)
- EKAINAK 12: MINGO Y LOS EFICAZES KONTZERTUA (DONOSTIA)
- EKAINAK 19: GEU ELKARTEAREN ESKUTIK, KULTUR ERROTA
- EKAINAK 26: ANOREXIA (IRUÑEA). ROCK KONTZERTUA

ETA GASTEIZKO

GAZTETXEAN...

"ANTZERKI SORTA"

gasteizko gaztetxearen
XIII. urteurrenaherriaren erroetatik...
urte askotarako

- EKAINAK 1, Ostirala: "LA PATRO TEATRO" Taldea, "LECCION DE ORGASMO I" antzezlan
- EKAINAK 2, Larunbata: "KILKITZARO" Taldea: "TROKAOLATARRAK" antzezlan
- EKAINAK 8, Ostirala: "DETRITUS TEATRUS" Taldea: "GU-GU TXUPETE" antzezlan
- EKAINAK 15, Ostirala: "LA PATRO TEATRO" Taldea: "LECCION DE ORGASMO II" antzezlan
- EKAINAK 22, Ostirala: LESGAYTEGIk antolaturiko antzerkia
- EKAINAK 29, Ostirala: "LA PATRO TEATRO" Taldea: "SALOMÉ O ALGO PARECIDO"
- UZTAILAK 6, Ostirala: "LATIRILI" Taldea.

*ETA HONETAZ GAIN:

- EKAINAK 9. KONTZERTUA: "PARASMA" eta "ERASO"
- EKAINAK 16. EUSKAL HERRI MAILAKO EMAKUME TOPAKETAK
- EKAINAK 30. "EGUN BEREZIA GAZTETXEAN"

GEUrekin mendira

ARBARAIN (HIRUMUGARRIETA)

Olaztitik igota

Noiz: Ekainak 17

Irteera: Goizeko 8:30etan Txapela tabernatik (Prado kalea)

*Goizeko irteera da. Itzulera: 15:00etan,

Tlfnoa: 945 14 62 96 (Edurne)



LOS ROTUROS

HOTELA TABERNA JATETXEA



BEREZITASUNAK

- Arkume errea
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Enpresa bilerak



Tlf.: 945.410.250
Errementari (Herreria) kalea, 10.

MAEZTU

e-mail: losroturos@teleline.es
web orria: usuarios.tripod.es/losroturos

- Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailarekin itundutako ikastetxea
- Arabako Lanbide Heziketako Partzuergoko kidea
- Lanbide Heziketako ikastetxe integrala
- Eusko Jaurilaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak babestutako ikastetxea
- Hobetuzek eta INEMek homologatutako ikastetxea
- Egailanen (Langai) ikastetxe laguntzailea
- HETEL eta UCARA elkartutako ikastetxea
- Caja Vital Kutxako Gizarte Ekintzan sartua

LANBIDE HEZIKETA 2001-2002

LHko HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

Lanbide Heziketa berria heziketa Zikloetan egituratuta dago. Erdi-Mailakoak 16 urtetik aurrera ikasten dira, gutxieneko titulazio akademikoa lortuta. Hainbat arlotan (20) eta arlo bakoitzaren barruan Tituluetan bilduta daude (61 guztira).

DIOCESANASek Erdi-Mailako 8 heziketa ziklo eskaintzen ditu 7 arlo ezberdinetan.

SARBIDERAKO BALDINTZAK

- Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatuaren titulua.
- BBBko edo IEEko 2. maila gainditua izatea.
- Edozein espezialitatetako LH1-eko titulua.
- Gutxieneko titulazioa ez dutenentzat sarbide probarekin.

IRAUPENA

- Batzuek bi ikasturte baino iraupen laburragoa dute (1.300, 1.400 edo 1.700 ordu).
- Beste batzuek bi ikasturteko iraupena dute (2.000 ordu).

IRTEERAK

- Lan mundurantz, Teknikari titulazioa eskuratuta.
- Batxilergorantz, baliozkotzeekin.

EZAUGARRIAK

- Lanbide bakoitzaren arabera giza eta teknika alorretako heziketa.
- Prestakuntza teoriko-praktikoa ikastetxean eta praktikak enpresetan.
- Heziketa, azoketara, erakusketara, puntako enpresetara bisitaldiekin, kultura lehiatsuen sustapenarekin, Europar Herrialdeetan egonaldiekin...osatzen da.
- Lanbide orientazio eta lan munduratzeko programak LANGAIrekin elkarlanean.

ERDI MAILA

ARRIAGA	• Lineak Eramatea eta Instalazioen Mantentze Elektromekanikoa	2.000 ordu	egunezkoa
MOLINUEVO	• Administrazio Kudeaketa • Ile-apainketa • Erizain Laguntzaileen zainketak	1.300 ordu 2.000 ordu 1.400 ordu	egunez./gauetz. egunezkoa gauetzkoa
NIEVES CANO	• Mekanizazioa • Mekanizazioa (euskeraz)	2.000 ordu 2.000 ordu	egunez./gauetz. egunezkoa
MENDIZORROTZA	• Sukaldaritza • Taberna eta Jatetxe Zerbitzuak • Gozokintza eta Okintza	2.000 ordu 1.400 ordu 1.400 ordu	egunezkoa egunezkoa egunezkoa

GOI MAILA

ARRIAGA	• Elektroteknika Gaiak Garatzea • Erregulazio eta Kontrol Automatikoaren Sistemak (Elektronika) • Industri Ekipoak Mantentzea • Automobilgintza • Telekomunikazio eta Informatika Sistemak • Informatika Aplikazioen Garapena • Informatika Sistemak Garatzea	2.000 ordu 2.000 ordu 2.000 ordu 2.000 ordu 2.000 ordu 2.000 ordu 2.000 ordu	egunezkoa egunezkoa egunezkoa egunezkoa egunezkoa egunez./gauetz. egunezkoa
MOLINUEVO	• Administrazioa eta Finantzak • Administrazioa eta Finantzak (euskeraz, erderaz eta lgelesaz) • Idazkaritza • Garraioaren Kudeaketa • Merkataritza Kudeaketa eta Marketina • Estetika • Animazio Soziokulturala	2.000 ordu 2.000 ordu 1.300 ordu 2.000 ordu 1.400 ordu 2.000 ordu 1.700 ordu	egunez./gauetz. egunezkoa egunezkoa egunezkoa gauetzkoa egunezkoa egunezkoa
NIEVES CANO	• Mekanizazioko Produkzioa • Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazioa) • Diagnostiko Klinikoaren Laborategia	2.000 ordu 2.000 ordu 2.000 ordu	egunez./gauetz. egunezkoa egunezkoa

Aldez aurreko izen-ematea

Arriaga, Molinuevo, Nieves Cano eta Mendizorrotza-ko idazkaritzan

ekainaren 1etik 12ra

Ordutegia: 8:15etik 13:15era eta 15:30tik 20:30ra

LHko HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA

Goi-Mailako Zikloak 18 urtetik aurrera ikasten dira, gutxieneko titulazio akademikoa lortuta. Hainbat arlotan (22) eta arlo bakoitzaren barruan Tituluetan bilduta daude (74 guztira).

DIOCESANASek Goi-Mailako 16 heziketa ziklo eskaintzen ditu, 9 arlo ezberdinetan taldekaturik.

SARBIDERAKO BALDINTZAK

- Batxilergoko titulua (LOGSE edo IEE).
- UBI gainditua izatea.
- LH-2-ko titulua.
- Gutxieneko titulazioa ez dutenentzat sarbide probarekin

IRAUPENA

- Batzuek: Bi ikasturte baino laburragoa (1.300, 1.400 edo 1.700 ordu).
- Gehienek: Bi ikasturte osoak (2.000 ordu).

IRTEERAK

- Lan mundurantz, Goi Teknikari titulazioa eskuratuta.
- Unibertsitaterantz (hautespen-azterketaren bidez), Unibertsitate Eskoletarantz.

EZAUGARRIAK

- Lanbide bakoitzaren arabera giza eta teknika alorretako heziketa.
- Prestakuntza teoriko-praktikoa ikastetxean eta praktikak enpresetan.
- Heziketa, azoketara, erakusketara, puntako enpresetara bisitaldiekin, kultura lehiatsuen sustapenarekin, Europar Herrialdeetan egonaldiekin...osatzen da.
- Lanbide orientazio eta lan munduratzeko programak LANGAIrekin elkarlanean.